LAUDIO

Hiri Antolamenduko
Plan Orokorra

Laudioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra

# Aurretiazko txostena,
# herritarren iritzi-emate aktiborako oinarritzat erabiliko dena

Plan General de Ordenación Urbana de Laudio

# Informe previo para exploración participativa

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

# Introducción

El Ayuntamiento de Laudio ha decidido iniciar la formulación de una revisión total de su planeamiento urbanístico general, entendiendo que el vigente se encuentra agotado en sus objetivos, y sobrepasado por las necesidades y problemas que han surgido en sus ya largos años de vigencia. Es, además, esta revisión, una obligación legal dispuesta por la vigente Ley de Suelo y Urbanismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Hoy día un proyecto de esta naturaleza, que tiene por objeto establecer los elementos básicos para la organización y estructura del territorio, debe concebirse desde una perspectiva estratégica, orientada a sintetizar e integrar las actividades territoriales en un proyecto coherente, más allá del enfoque puramente normativo. Y ello debe suponer un reto colectivo de compromiso, encuadrado en un entorno espacial determinado: el entorno y las estrategias deben constituir, por tanto, un elemento clave para la madurez y cohesión de la propia sociedad.

Plantear una propuesta articulada pero unilateral desde la administración no permitiría que la formulación del proyecto territorial mismo llegase a constituir un elemento de cohesión social, al limitar el proceso participativo en el que cada comunidad debe modelar sus inquietudes y ambiciones. El concurso de los diferentes agentes sociales, económicos e institucionales debe convertirse, pues en un objetivo en sí mismo. Para ello, es preciso plantear mecanismo, que impliquen desde el inicio a toda la sociedad civil en el proceso de discusión y definición de las directrices y objetivos, de tal forma que puedan asumirse plenamente las conclusiones y

# Sarrera

Laudioko Udalak bere hirigintza-plangintza orokorraren berrikuspen osoa egiten hastea erabaki du, indarrean dagoena bere helburuetan agortuta dagoela ulertuta, eta indarrean egon den urte luzeetan sortu diren premiek eta arazoek gaindituta. Gainera, berrikuspen hau indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak ezarritako legezko betebeharra da.

Gaur egun, lurraldearen antolamendurako eta egiturarako oinarrizko elementuak ezartzea helburu duen horrelako proiektu bat ikuspegi estrategiko batetik sortu beharra dago, lurralde-jarduerak proiektu koherente batean sintetizatu eta integratzera bideratutako ikuspegi batean, hain zuzen, eta ikuspegi arauemaile hutsetik harago. Eta horrek konpromisozko erronka kolektiboa izan behar du, ingurune espazial jakin batean kokatua: ingurunea eta estrategiak, beraz, funtsezko elementuak izan behar dira gizartearen heldutasunerako eta kohesiorako.

Administrazioak proposamen artikulatu baina aldebakarrekoa planteatzeak ez luke ahalbidetuko lurralde proiektua bera gizarte-kohesioko elementu bihurtzea, erkidego bakoitzak bere kezkak eta anbizioak modelatu behar dituen partaidetza-prozesua mugatzen baitu. Eragile sozial, ekonomiko eta instituzional desberdinen partaidetza helburu bihurtu behar da berez. Horretarako, mekanismo bat planteatu behar da, hasieratik gizarte zibil osoa inplikatuko duena gidalerroak eta helburuak eztabaidatzeko eta definitzeko prozesuan, hartzen diren ondorioak eta ebazpenak erabat onartu ahal izateko, bai eta horien garapena bultzatzen modu erabakigarrian laguntzeko ere.

resoluciones que se adopten, así como contribuir decisivamente a impulsar su desarrollo.

Es por ello que el proceso de elaboración del nuevo PGOU de Laudio se ha propuesto iniciar con un proceso participativo con el que se pretende recopilar las percepciones que del territorio de Laudio tienen desde la ciudadanía en general a una amplia variedad de representantes de sectores claves, que la viven o la han vivido de un modo especial, que por ello tienen un conocimiento profundo del mismo o de algunos de sus elementos determinantes.

De lo que se trata ahora es de solicitar una reflexión en la que se realicen planteamientos generales y prospectivos sobre el municipio, y de sus necesidades y anhelos. En definitiva, una visión particularizada y subjetiva de los problemas del ámbito y sus causas, así como llegar a definir el territorio que se quiere.

Con esta primera aproximación se pretende "identificar las tendencias" que surgen en el territorio, y de ellas puede derivarse, sin duda, suficiente material para que la continuidad prevista, tanto desde la participación como desde la redacción, sea más sistemática y exhaustiva.

Para apoyar, e instigar esta reflexión solicitada, se adjunta el presente Informe Preliminar que recoge un brevísimo análisis y valoración crítica del escenario actual, sobre el que se solicitan las visiones o consideraciones de la ciudadanía, a los efectos de mejorar en la medida la participación de los ciudadanos y ciudadanas en el procedimiento de elaboración de las normas.

Hori dela eta, Laudioko HAPO berria egiteko prozesua parte-hartze prozesu batekin hastea proposatu da. Prozesu horren bidez, Laudioko lurraldeari buruzko pertzepzioak bildu nahi dira; herritarrek oro har dituztenak, eta baita funtsezko sektoreetako ordezkari anitzek dituztenak ere; izan ere, azen hauek modu berezian bizi dute edo bizi izan dute lurraldea, eta, horregatik, sakon ezagutzen dute hau edota honen elementu erabakigarri batzuk.

Orain, hausnarketa bat eskatu nahi da, udalerriari eta udalerriaren behar eta nahiei buruzko planteamendu orokorrak eta prospektiboak egiteko. Finean, eremuko arazoen eta horien kausen ikuspegi partikularizatu eta subjektiboa, baita nahi den lurraldea definitzera iristea ere.

Lehen hurbilketa horren bidez, lurraldean sortzen diren "joerak identifikatu" nahi dira, eta joera horietatik, zalantzarik gabe, nahikoa material ondoriozta daiteke aurreikusitako jarraitutasuna sistematikoagoa eta zehatzagoa izan dadin, bai parte-hartzetik bai erredakziotik.

Eskatutako hausnarketa hori bultzatzeko, atariko txosten bat erantsi da, egungo egoeraren azterketa eta balorazio kritiko labur bat jasotzen duena. Arau berriak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetzeko helburuarekin txosten horretan jasotzen denaren inguruan herritarren ikuspuntuak edo iritziak eskatzen dira

# El marco urbanístico

Por Orden Foral 17/1993, de 20 de enero (BOTHA Nº1610 de febrero de 1993), se aprobó definitivamente el Plan General de Ordenación Urbana de Laudio/Llodio, con entrada en vigor el mismo día; instrumento que no se encuentra adaptado a las determinaciones de la vigente Ley 2/2006, 30 de junio del Suelo del País Vasco.

En la fecha en la que se aprobó el plan Laudio/Llodio contaba con 20.405habitantes y según los últimos datos del EUSTAT en la actualidad rodaría los 18.109 (88,7%). Con una extensión territorial de aproximadamente 3.767 Ha, el 86,92% de esta superficie correspondería a suelo no urbanizable. El total de viviendas del municipio según el mismo servicio es de 8.928 de las cuales en torno al 15 % serían viviendas secundarias o vacías. El número medio de residentes es de 2,4 personas por vivienda (idéntico a la CAPV) y la antigüedad media de las viviendas principales es de 41,33 años, bastante superior a la media de la CAPV (27,81 años).

El Plan General de 1993 (y su primera Modificación general de 1995) delimitó una superficie de suelo con calificación global residencial de 104,89 Ha de las cuales hoy 98,63 Ha se encuentran consolidadas en las cuales quedan por construir 16.200 m2t.

Desde su aprobación se ha transformado un total de 62 Ha de suelo urbanizable, lo que supone el 59% del máximo previsto por el plan. A su vez, en el suelo urbano la colmatación y consolidación ha sido prácticamente total, a excepción de unos pocos edificios prediseñados y de algunas áreas de reparto que no han sido posible ejecutar tal y como se ha

# Hirigintza-esparrua

Urtarrilaren 20ko 17/1993 Foru Aginduaren bidez (ALHAO, 1610. zk., 1993ko otsailaren 10ekoa), behin betiko onartu zen Laudioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, eta egun berean sartu zen indarrean. Tresna hori ez dago egokituta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zehaztapenetara.

Laudioko plana onartu zen egunean 20.405 biztanle zituen, eta EUSTATen azken datuen arabera, gaur egun 18.109 biztanle ditu ( % 88,7). 3.767 Ha inguruko lurralde-hedadurarekin, azalera horren % 86,92 lurzoru urbanizaezinari dagokio. Udalerrian, zerbitzu beraren arabera, 8.928 etxebizitza daude, eta horietatik % 15 inguru bigarren mailako etxebizitzak edo etxebizitza hutsak dira. Etxebizitza bakoitzeko batez besteko egoiliar kopurua 2,4 pertsonakoa da (EAEren berdina) eta etxebizitza nagusien batez besteko antzinatasuna 41,33 urtekoa da, EAEko batez bestekoa (27,81 urte) baino dezente handiagoa.

1993ko Plan Orokorrak (eta 1995eko lehenengo Aldaketa orokorrak) 104,89 Hako bizitegi-kalifikazio orokorra zuen lurzoru-azalera mugatu zuen, eta gaur egun dagoeneko 98,63 Ha finkatuta daude, eta horietan 16.200 m2t geratzen dira eraikitzeke.

Onartu zenetik, lurzoru urbanizagarriaren 62 Ha eraldatu dira guztira, hau da, planean aurreikusitako gehienekoaren % 59. Era berean, hiri-lurzoruan ia erabatekoa izan da kolmatazioa eta finkatzea, aurrez diseinatutako eraikin gutxi batzuk eta banaketa-area batzuk izan ezik, horiek ezin izan baitira gauzatu lehen azaldu den bezala. Edo, bestela esanda,

explicado anteriormente. O lo que es lo mismo, en las últimas 3 décadas el suelo urbano en Laudio/Llodio ha incrementado más de un 71%, frente a un decrecimiento poblacional del 11,25%.

**SOBRE LA VIVIENDA:** Laudio/Llodio ha pasado de ser un municipio de marcado carácter industrial a convertirse en un lugar de residencia habitual para muchas personas que trabajan fuera de la localidad. A esta demanda se le ha respondido mayoritariamente con edificios residenciales de densidad media o alta; aunque, tal y como hemos comentado, hayan existido desarrollos más extensivos como los de Lateorrondo o Isasi, donde se apostó por la vivienda de baja densidad en respuesta a la alta demanda de los 90.

La falta de oferta de vivienda protegida durante la primera mitad de la vigencia del Plan complicó la retención de la población joven local, que optaron por instalarse en Luiaondo u Okondo, donde disponer de una vivienda era más accesible.

**TEJIDO URBANO:** respecto al suelo urbano residencial y de otros usos complementarios, la evolución urbanística de Laudio/Llodio ha estado fuertemente condicionada por varios ejes territoriales, de los que destacan la antigua carretera Bilbao Madrid, el río Nervión y la línea de ferrocarril Bilbao Madrid. Estos ejes, junto a las grandes pendientes de los montes perimetrales, han actuado como límites secuenciales en el crecimiento urbano, habiendo sido superados ya hacia Latiorro, donde hoy nuevamente se cierra la ciudad con el límite que supone la variante de la A-625. De entre todos los límites cabe destacar el del ferrocarril, que, pese a las recientes intervenciones, continúa siendo una barrera

azkenengo 3 hamarkadetan, Laudioko hiri-lurzorua % 71 baino gehiago hazi da, eta biztanleriaren % 11,25 murriztu da.

**ETXEBIZITZARI BURUZ:** Laudio izaera industrial nabarmeneko udalerria izatetik herritik kanpo lan egiten duten pertsona askorentzat ohiko bizileku izatera igaro da. Eskari horri dentsitate ertain edo altuko bizitegi-eraikinekin erantzun zaio gehienbat, nahiz eta, esan dugun bezala, garapen zabalagoak egon diren, hala nola Lateorrondokoak edo Isasikoak, non dentsitate txikiko etxebizitzaren aldeko apustua egin zen 90eko hamarkadako eskaera handiari erantzunez.

Planaren indarraldiaren lehen erdian etxebizitza babestua eskaini ez izanak zaildu egin zuen tokiko gazteen atxikipena, eta horrela Luiaondora edo Okondora joatea erabaki zuten, etxebizitza eskuragarriagoa baitzen han.

**HIRI-EHUNA:** bizitegitarako hiri-lurzoruari eta beste erabilera osagarri batzuei dagokienez, Laudioko hirigintza-bilakaera oso baldintzatuta egon da hainbat lurralde-ardatzengatik, eta horien artean nabarmentzekoak dira Bilbao Madrid errepide zaharra, Nerbioi ibaia eta Bilbao Madrid trenbidea. Ardatz horiek, inguruko mendien malda handiekin batera, muga sekuentzial gisa jardun dute hiri-hazkundean, eta dagoeneko gainditu dira Latiorrorantz. Gaur egun, berriz ere, hiria ixten da, A-625 errepidearen saihesbideak dakarren mugarekin. Muga guztien artean, trenbidearena nabarmendu behar da, azken aldiko esku-hartzeak gorabehera, hirigintza-hesi nabarmena baita oraindik Latiorroren kasuan, eta, beraz, iragazkortasuna handitzen jarraitu behar da.

urbanística transcendente en el caso de Latiorro, por lo que se debe seguir incrementando la permeabilidad.

Respecto al suelo destinado a actividades económicas, destacan las grandes áreas industriales al norte y sur del centro urbano, que se desarrollaron en los 60. Estas empresas o sus sucesoras, continúan ocupando grandes extensiones de terreno para su actividad. Cabe recordar que en torno a 20 Ha de suelo urbanizable industrial no ha sido desarrollado por diversos motivos, pese a que en los últimos años empresas de la localidad o de la comarca han requerido suelo para su ampliación.

De este desarrollo industrial existen numerosos ejemplos de patrimonio histórico-arquitectónico en el núcleo que se manifiestan en las arquitecturas rurales, palacetes, de los inicios de la actividad industrial, o de los edificios representativos del centro urbano.

**SUELO NO URBANIZABLE:** Cabe destacar que, a excepción de alguna zona del barrio de Gardea, el municipio de Laudio/Llodio no dispone de suelo de Alto Valor Estratégico según el Plan Sectorial correspondiente. Se recomienda preservar el suelo de alto valor agrario para potenciar la actividad económica del primer sector, que Llodio al igual que su comarca registran un descenso de actividad en ese sector primario. El sector primario representa el 0,2% de Valor añadido bruto del municipio, el más bajo de Aiaraldea.

El 68,9% de la superficie de Laudio/Llodio es forestal, lo que ilustra la importancia del sector forestal en el municipio como suministrador de madera para usos industriales. A su vez, el 34,5% de la superficie forestal es de propiedad pública. Sin embargo, se evidencian carencias de ordenación del global del

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokionez, hirigunearen iparraldeko eta hegoaldeko industrialde handiak nabarmentzen dira, 60ko hamarkadan garatu zirenak. Enpresa horiek edo haien ondorengoek beren jarduerarako lur-eremu handiak okupatzen jarraitzen dute. Gogoratu behar da industria-lurzoru urbanizagarriko 20 hektarea inguru ez direla garatu hainbat arrazoirengatik, nahiz eta azken urteotan herriko edo eskualdeko enpresek lurzorua behar izan duten handitzeko.

Industria-garapen horren ondare historiko-arkitektonikoaren adibide ugari daude hirigunean, industria-jardueraren hasierako garaietako landa-arkitekturetan edo jauregietan adierazten direnak, edo hiriguneko eraikin adierazgarrienetan.

**LURZORU URBANIZAEZINA:** Azpimarratu behar da, Gardea auzoko zonaren bat izan ezik, Laudioko udalerriak ez duela balio estrategiko handiko lurzorurik, dagokion plan sektorialaren arabera. Nekazaritza-balio handiko lurzoruari eustea gomendatzen da, lehen sektoreko jarduera ekonomikoa indartzeko. Laudion eta eskualdean jarduera-jaitsiera dago lehen sektore horretan. Lehen sektoreak udalerriko balio erantsi gordinaren % 0,2 hartzen du, Aiaraldeko txikiena.

Laudioko azaleraren % 68,9 basoa da, eta horrek erakusten du basogintza-sektoreak udalerrian duen garrantzia industria-erabileretarako zur-hornitzaile gisa. Era berean, baso-azaleraren % 34,5 jabetza publikokoa da. Hala ere, mendiaren antolamendu globalaren gabeziak agerian geratzen dira,

monte, que pudiera posibilitar una gestión guiada por la compatibilización de los usos productivos y los fines de conservación del patrimonio natural y de sus funciones ecosistémicas.

También se observa una gran cantidad de parcelas edificadas en el ámbito rural, y en particular en los núcleos rurales, e incluso en zonas forestales.

**SISTEMA VIARIO:** La red viaria existente estructura prácticamente el municipio en su totalidad con unas condiciones de gestión del tráfico aceptables, a excepción de la conexión entre la A-3632 con Zumalakarregi, así como la conexión entre la zona este de la línea del ferrocarril con el núcleo urbano que pasa por el uso predominante del viaducto de Arantzar.

Sin embargo, hay que remarcar que los accesos y sobre todo salidas correspondientes a la zona industrial ligada a la producción del vidrio es hoy en día bastante escasa y merece una solución definitiva que libere del tráfico pesado las zonas residenciales.

**MOVILIDAD Y TRANSPORTE PÚBLICO:** se debe remarcar la saturación de los accesos antes mencionada. Impera la preponderancia de la vialidad rodada. La conexión entre barrios y de estos con el núcleo es mejorable. Además, los itinerarios peatonales periurbanos y/o en zonas residenciales eminentemente de baja densidad son percibidos como poco seguros por buena parte de la sociedad.

Algo similar sucede con la red de bidegorris que se desarrolla linealmente paralelo al eje fluvial. Es necesario abordar las

ekoizpen-erabileren bateragarritasunak eta natura-ondarearen eta haren funtzio ekosistemikoen kontserbazio-helburuek gidatutako kudeaketa ahalbidetzeko.

Landa-eremuan ere lurzati asko daude eraikita, bereziki landa-guneetan, baita baso-eremuetan ere.

**BIDE SISTEMA:** Dagoen bide-sareak ia udalerri osoa egituratzen du trafikoa kudeatzeko baldintza onargarriekin, A-3632 eta Zumalakarregi errepideen arteko lotura izan ezik, baita trenbidearen ekialdearen eta herrigunearen arteko lotura ere, Arantzarko biaduktuaren erabilera intentsoaren bidez egiten dena.

Hala ere, azpimarratu behar da beiraren ekoizpenari lotutako industrialdeko sarbideak eta, batez ere, irteerak nahiko eskasak direla gaur egun, eta behin betiko konponbidea merezi duela, bizitegi-eremuak trafiko astunetik askatzeko gai izango dena.

**MUGIKORTASUNA ETA GARRAIO PUBLIKOA:** lehen aipatutako sarbideen saturazioa azpimarratu behar da. Ibilgailuentzako bideen lehentasuna nagusitzen da. Hirigunea eta auzoen arteko, zein auzoen arteko lotura hobetu daiteke. Gainera, hirigune inguruko eta/edo batez ere dentsitate txikiko bizitegi-eremuetako oinezkoen ibilbideak ez dira oso seguruak gizartearen zati handi batentzako.

Antzeko zerbait gertatzen da ibai-ardatzarekiko paraleloan garatzen den bidegorri-sarearekin. Beharrezkoa da

conexiones transversales destinadas a movilidad blanda, así como la interconexión periurbana, y en especial la interconexión entre el núcleo central y el resto de barrios periféricos, estaciones de cercanías y equipamientos.

Se debe subrayar la importancia que tienen los aparcamientos disuasorios o lanzaderas, que han dado respuestas satisfactorias en generales, aunque se existe un problema de aparcamiento entorno al ambulatorio del municipio, que concentra muchas especialidades comarcales y es destino de muchos pacientes comarcales.

En todo caso, debe apostarse por la interconexión de la malla de movilidad blanda con las paradas de ferrocarril y autobús en condiciones de seguridad y calidad, de modo tal que progresivamente se incremente su uso en los desplazamientos diarios de carácter laboral o educativo, adoptando medidas tales como cambios de prioridad, peatonalizaciones o pasos a desnivel.

**ESPACIOS LIBRES:** Laudio/Llodio cuenta con una muy amplia superficie destinada a zona verde, a zona dura y a zona peatonal. Se considera mejorable la secuencia lineal que se da a ambos márgenes del rio Nervión que conforman el parque lineal del Nervión. Pese al alto impacto ambiental que tiene la canalización del río, este eje ha logrado poner en valor en cierta medida la importancia del río en la localidad. Debería adoptarse la estrategia de recuperación ecológica de las vegas de estos ríos para el esparcimiento y la protección de sus ecosistemas.

Caben mejoras también el eje transversal Ugarte Latiorro, también en cuanto a la interconexión de los equipamientos que en él se encuentran mediante la conexión de los espacios

mugikortasun bigunera bideratutako zeharkako konexioei ekitea, baita hiri-inguruko interkonexioari ere; eta, bereziki, erdigunearen eta gainerako auzo periferikoen, aldiriko geltokien eta ekipamenduen arteko interkonexioari.

Disuasio-aparkalekuek edo anezkek duten garrantzia azpimarratu behar da, erantzun onak eman baitituzte oro har, nahiz eta udalerriko anbulatorioaren inguruan aparkatzeko arazo bat egon. Izan ere honek eskualdeko espezialitate asko biltzen baititu eta eskualdeko paziente askoren jomuga da.

Nolanahi ere, mugikortasun-sare bigunaren eta trenbideko eta autobuseko geltokien arteko interkonexioaren aldeko apustua egin behar da, segurtasun- eta kalitate-baldintzetan, egunero lanerako edo hezkuntza zentroetarako joan-etorrietan gero eta erabilera handiagoa izan dezaten; eta, horretarako, hainbat neurri hartu behar dira, hala nola lehentasun-aldaketak, oinezkoentzako bideak edo trenbide-pasaguneak

**ESPAZIO LIBREAK:** Laudiok berdegune, eremu gogor eta oinezkoentzako gune gisa erabiltzen den azalera oso zabala du. Nerbioi ibaiaren bi ertzetan Nerbioi ibaiaren parke lineala osatzen duen espazioen sekuentzia lineala hobetu daiteke. Ibaiaren kanalizazioak ingurumen-inpaktu handia badu ere, ardatz honek lortu du, neurri handi batean, ibaiak herrian duen garrantzia nabarmentzea. Ibai horietako ibarrak ekologikoki leheneratzeko estrategia hartu beharko litzateke, bertako ekosistemak babesteko eta aisialdirako.

Ugarte Latiorro zeharkako ardatza ere hobetu daiteke, bertan dauden ekipamenduen arteko konexioari dagokionez, bertan dauden espazio libreak lotuz:

libres que en él se encuentran: Ellakuri / Ugarte / Polideportivo / Parkea / Lamuza / Herriko plaza / Parque lineal del Nervión / Estación de Cercanías / Nuevo Antzoki / Nuevo Ambulatorio / Cementerio / Escuela de Latiorro.

**EQUIPAMIENTOS Y SERVICIOS BÁSICOS:** Laudio/Llodio dispone de un gran número de equipamientos comunitarios, deportivos, sanitarios o docentes enclavados en la trama urbana, así como reservas de suelo en las urbanizaciones más recientes para el desarrollo de nuevos, distribuidos homogéneamente por todo el municipio. No se aprecia déficit importante de equipamientos. Sin embargo, el reto debe ser el de conectarlos entre sí, así como con la malla de espacios libres y la red de espacios peatonales y ciclables.

Los centros docentes se localizan integrados en la malla urbana, con mejor o peor accesibilidad, como es el caso de los centros más alejados al centro. En cualquier caso, la ampliación de las instalaciones es compleja por lo que el nuevo PGOU deberá anticiparse a las posibles demandas futuras.

Ellakuri/Ugarte/Kiroldegia/Parkea/Lamuza/Herriko plaza/Nerbioiko Parke Lineala/Aldirikoen geltokia/Antzoki Berria/Anbulatorio Berria/Hilerria/Latiorroko eskola.

**OINARRIZKO EKIPAMENDU ETA ZERBITZUAK:** Laudion komunitate-, osasun-, kirol- edo irakaskuntza-ekipamendu ugari daude, hiri-bilbean txertatuak, eta aldi berean lurzoru erreserbak ditu urbanizazio berrienetan ekipamendu eta zerbitzu berriak garatzeko, udalerri osoan modu nahiko homogeneoan banatuta. Ekipamenduen aldetik ez da ikusten gabezia handirik. Hala ere, erronka izan behar da espazio libreen sarearekin eta oinezkoentzako eta bizikletentzako espazioen sarearekin lotzea.

Ikastetxeak hiri-sarean integratuta daude, irisgarritasun hobearekin edo okerragoarekin, zentrotik urrunen dauden zentroen kasuan bezala. Nolanahi ere, instalazioak handitzea konplexua denez, HAPO berriak aurrea hartu beharko die etorkizunean egin daitezkeen eskaerei.

| *Respecto a la situación actual* | *Egungo egoerari dagokionez* |
| --- | --- |
| *¿Considera positiva la proliferación de barrios de baja densidad?*<br>*(si/no/nsnc)* | *Zure ustez, positiboa da dentsitate txikiko auzoak ugaritzea?*<br>*(bai/ez/ed.ede)* |
| *¿Considera adecuado apostar por un modelo residencial diferente?*<br>*(si/no/nsnc)* | *Egokia iruditzen zaizu beste egoitza-eredu baten alde egitea?*<br>*(bai/ez/ed.ede)* |
| *¿Considera suficiente la oferta de vivienda en cuanto a volumen disponible?*<br>*(si/no/nsnc)* | *Nahikoa iruditzen al zaizu etxebizitza-eskaintza, eskuragarri dagoen bolumenari dagokionez?*<br>*(bai/ez/ed.ede)* |
| *¿Y en cuanto a precio?*<br>*(si/no/nsnc)* | *Eta prezioari dagokionez?*<br>*(bai/ez/ed.ede)* |
| *¿Considera necesarias nuevas conexiones entre espacios naturales?*<br>*(si/no/nsnc)*<br>*¿Cuáles?* | *Naturguneen arteko lotura berriak beharrezkoak direla uste duzu?*<br>*(bai/ez/ed.ede)*<br>*Zeintzuk?* |
| *¿Considera que se necesitan nuevas vías de comunicación?*<br>*(si/no/nsnc)*<br>*¿Cuales?* | *Komunikazio-bide berriak behar direla uste duzu?*<br>*(bai/ez/ed.ede)*<br>*Zeintzuk?* |

| | |
|---|---|
| *¿Considera adecuando el sistema público de transporte?*<br>*(si/no/nsnc)*<br>*¿Qué mejoraría?* | *Garraio sistema publikoa egokitzen dela uste duzu?*<br>*(bai/ez/ed.ede)*<br>*Zer hobetuko luke?* |
| *¿Considera adecuado el sistema de bidegorri actual?*<br>*(si/no/nsnc)* | *Egokia iruditzen al zaizu egungo bidegorri-sistema?*<br>*(bai/ez/ed.ede)* |
| *¿Considera adecuado el servicio de transportes respecto a otros municipios?*<br>*(si/no/nsnc)* | *Egokitzat jotzen duzu garraio-zerbitzua beste udalerri batzuekin alderatuta?*<br>*(bai/ez/ed.ede)* |
| *¿Considera adecuados los espacios libres (mobiliario, iluminación…)?*<br>*(si/no/nsnc)* | *Egokitzat jotzen dituzu espazio libreak (altzariak, argiztapena,…)?*<br>*(bai/ez/ed.ede)* |
| ¿Considera adecuado y suficiente el espacio dedicado a actividades económicas?<br>(si/no/nsnc) | *Egokitzat eta nahikotzat jotzen duzu jarduera ekonomikoetarako espazioa?*<br>*(bai/ez/ed.ede)* |

## *Reflexión abierta* | *Gogoeta irekia*

# Planes supramunicipales

## CONDICIONANTES URBANÍSTICOS DEL PTP DEL ÁREA FUNCIONAL DE LAUDIO Y LAS DOT 2019.

En desarrollo de la DOT 1997, el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Llodio fue aprobado definitivamente mediante Decreto 19/2005, de 25 de enero. Desde su aprobación en 2005 el PTP no ha tenido ninguna modificación. No obstante, cabe señalar que en desarrollo del mismo se aprobó el Plan Especial del Parque Lineal del Nervión en octubre de 2006, lo que dio origen a su posterior desarrollo y ejecución.

Es necesario mencionar que tras la aprobación del PTP del Área Funcional de Llodio se ha aprobado el siguiente Planeamiento Territorial Sectorial (PTS):

- Plan Territorial Sectorial Agroforestal. Decreto 177/2014, de 16 de septiembre.
- Decreto 449/2013, de 19 de noviembre por el que se aprueban las modificaciones del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV (Vertiente Cantábrica y Mediterránea.
- Plan Especial del Parque Lineal del Nervión:
- Otros Planes Territoriales Sectoriales: Agroforestal, Zonas Húmedas, Suelo de actividades económicas, Red ferroviaria, itinerarios ciclables, Carreteras y transporte sostenible.

# Udalaz gaindiko planak

## LAUDIOKO EREMU FUNTZIONALEKO LPParen ETA 2019ko LAGen HIRIGINTZA-BALDINTZAK.

1997ko LAG garatzeko, Laudioko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu zen urtarrilaren 25eko 19/2005 Dekretuaren bidez. 2005ean onartu zenetik, LPPak ez du inolako aldaketarik izan. Hala ere, aipatu behar da hura garatzeko Nerbioiko Parke Linealaren Plan Berezia onartu zela 2006ko urrian, eta horren ondorioz garatu eta gauzatu zela.

Aipatu beharra dago Laudioko Eremu Funtzionaleko LPPa onartu ondoren, honako Lurralde Plangintza Sektorial (LPS) hau onartu dela:

- Nekazaritza eta Basogintzaren Lurraldeko Arlo Plana. 177/2014 Dekretua, irailaren 16koa.
- 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketak onartzen dituena (isurialde kantauriarra eta mediterraneoa).
- Nerbioiko Parke Linealaren Plan Berezia:
- Beste lurralde-plan sektorial batzuk: nekazaritza eta basogintza, hezeguneak, jarduera ekonomikoetarako lurzorua, trenbide-sarea, bizikletentzako ibilbideak, errepideak eta garraio iraunkorra.

Por otra parte, mediante Decreto 128/2019 han sido aprobadas definitivamente las Directrices de Ordenación Territorial (DOT), que introducen cuestiones territoriales de gran importancia para la CAPV, como el medio físico y la infraestructura verde, la regeneración urbana y los ejes de transformación, el paisaje, la movilidad sostenible, la economía circular, la salud, el cambio climático, etc. Estas DOT comienzan así una nueva generación de planeamiento territorial en la CAPV, una segunda generación después de la primera, surgida a la luz de las DOT anteriores de 1997.

Bestalde, 128/2019 Dekretuaren bidez, behin betiko onartu dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), eta EAErako garrantzi handia duten lurralde-gaiak ezartzen dituzte, hala nola ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea, hiri-berroneratzea eta eraldaketa-ardatzak, paisaia, mugikortasun iraunkorra, ekonomia zirkularra, osasuna, klima-aldaketa eta abar. Horrela, LAG horiek lurralde-plangintzaren belaunaldi berri bat hasten dute EAEn, lehenengoaren ondorengo bigarren belaunaldi bat, 1997ko LAGen argitara sortua.

**MEDIO FÍSICO E INFRAESTRUCTURA VERDE:** El futuro PGOU deberá actualizar los espacios sujetos a algún tipo de protección, y además habrá de delimitar las categorías de ordenación y los condicionantes superpuestos del medio físico, con una denominación y regulación acordes con las DOT de 2019. De otra parte, por las DOT 2019 se considera fundamental la Infraestructura Verde del territorio. En ese sentido, varios de los elementos señalados por el PTP vigente son fragmentos de la Infraestructura Verde a nivel de área funcional, pero no todos los considerados por las DOT 2019. Una pieza fundamental es el Parque Lineal de Nervión, que suponía una de las mayores propuestas del PTP y que se está desarrollando durante todos estos años.

**INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA:** Etorkizuneko HAPOak babes-motaren bati lotutako espazioak eguneratu beharko ditu, eta, gainera, ingurune fisikoaren antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak mugatu beharko ditu, 2019ko LAGekin bat datorren izendapen eta erregulazioarekin. Bestalde, 2019ko LAGen arabera, funtsezkoa da lurraldearen azpiegitura berdea. Ildo horretan, indarrean dagoen LPPak adierazitako elementuetako batzuk eremu funtzionalaren mailaKO Azpiegitura Berdearen zatiak dira, baina ez 2019ko LAGek aintzat hartutako guztiak. Funtsezko pieza bat Nerbioi Parke Lineala da, LPPren proposamen handienetako bat zena eta urte hauetan guztietan garatzen ari dena.

**HÁBITAT URBANO:** En Laudio/Llodio se plantea por el PTP emprender una operación de renovación urbana para rediseñar y dotar de nuevas funciones a ámbitos obsoletos, junto con la creación de nuevos desarrollos que amplíen la oferta residencial y de actividades económicas. Todo ello asociado al soterramiento del ferrocarril.

**HIRI-HABITATA:** Laudion, LPPk hiri-berrikuntzako eragiketa bat abiaraztea planteatzen du, eremu zaharkituei funtzio berriak emateko eta birdiseinatzeko, eta bizitegi-eskaintza eta jarduera ekonomikoen eskaintza handitzeko garapen berriak sortzeko. Hori guztia trenbidea lurperatzearekin lotuta dago.

El documento de las DOT aprobado en 2019 reconoce el valle del Alto Nervión entre Laudio/Llodio y Urduña/Orduña "como un eje natural para la difusión de los cambios surgidos en el Bilbao Metropolitano, …". Es lo que ahora las DOT 2019 denominan el "Eje de Transformación del Alto Nervión". El eje se basa en el río Nervión como argumento natural, configurando un gran parque lineal que articula ambientalmente el conjunto del eje (infraestructura verde a nivel territorial), y se apoya también en el afianzamiento de una sólida base infraestructural: la carretera A-625, como Ecobulevar, y el ferrocarril. No se establece la determinación de soterrarla, aunque se mantiene la necesidad de realizar acciones de renovación urbana.

En lo que se refiere a la cuantificación residencial, las cifras resultantes a partir del método de las DOT de 2019 son más bajas que la propuesta en su momento por el PTP, pasando de las 6.660 viviendas como máximo del PTP a las 4.082 de las DOT. Y en lo que se refiere a Laudio/Llodio, de una cuantificación mínima 2.055 viviendas en un horizonte de 16 años a una cuantificación máxima de 862 viviendas para 8 años. Hay que reseñar también que el PTP prevé para el municipio de Laudio/Llodio desarrollos de media-baja densidad, y que desde las DOT 2019 esa tipología no se considera deseable

**ACTIVIDADES ECONÓMICAS:** el PTP a Laudio/Llodio se le considera municipio de interés Preferente para la ordenación y promoción urbanística de suelo para estas actividades. Además, para Laudio/Llodio se propone desarrollar una política específica de reconversión de áreas industriales obsoletas, dirigiéndolas hacia la implantación de centros comerciales de formato medio. Y se establece un ámbito de reserva para una nueva Industrialdea.

2019an onartutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen dokumentuak Laudio eta Urduña arteko Nerbioi Garaiko harana aitortzen du Bilbo Metropolitarrean sortutako aldaketak hedatzeko ardatz natural gisa. Orain, 2019ko LAGek Nerbioi Garaiko Eraldaketa Ardatza deitzen diote. Ardatza Nerbioi ibaian oinarritzen da argudio natural gisa, eta parke lineal handi bat eratzen du, ardatz osoa (azpiegitura berdea lurralde-mailan) ingurumen aldetik artikulatzen duena. Halaber, azpiegitura-oinarri sendo bat finkatzen du: A-625 errepidea, Ekobulebar gisa, eta trenbidea. Ez da lurpean sartzeko erabakirik ezarri, baina hiri-berrikuntzako ekintzak egiteko premiari eusten zaio.

Bizitegi-kuantifikazioari dagokionez, 2019ko LAGen metodotik ateratako zifrak bere garaian LPPak proposatutakoa baino baxuagoak dira, LPPko 6.660 etxebizitzetatik LAGetako 4.082 etxebizitzetara pasatuz. Eta Laudiori dagokionez, 16 urteko epean 2.055 etxebizitza izatetik 8 urterako 862 etxebizitza izatera. Aipatzekoa da, halaber, LPPk dentsitate ertain-baxuko garapenak aurreikusten dituela Laudioko udalerrirako, eta 2019ko LAGetatik tipologia hori ez dela desiragarria

**JARDUERA EKONOMIKOAK:** LPPan lehentasunezko interesekotzat jotzen da jarduera horietarako lurzoruaren hirigintza-antolamendu eta -sustapenari dagokionean. Gainera, Laudiorako, industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko politika espezifiko bat garatzea proposatzen da, formatu ertaineko merkataritza-guneak ezartzera bideratuz. Eta Industrialde berri baterako erreserba-eremu bat ezarri da.

Parece que resulta necesario un mayor ajuste y la reconsideración de los ámbitos previstos, habida cuenta de los problemas de inundabilidad o de costes de urbanización (Larra y Tejería). Por su parte, el Plan Territorial Sectorial de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales propone en el municipio gestionar una política específica urbanística con carácter incentivador para los procesos de reconversión de las áreas industriales obsoletas.

Una propuesta novedosa de las DOT aprobadas en 2019 es la determinación de que los PTP deben realizar una propuesta de Perímetro de Crecimiento Urbano, en consonancia con todas las medidas de contención del consumo de suelo, y en especial para los núcleos más dinámicos del Área Funcional, como es el caso de Laudio/Llodio.

**PAISAJE, PATRIMONIO CULTURAL Y NATURAL, Y RECURSOS TURÍSTICOS:** en las DOT 2019, se considera que el paisaje debe ser una referencia en la ordenación territorial y urbanística, y ha de tenerse en cuenta de manera integral. Será necesario, en la revisión del PGOU de Laudio/Llodio, integrar el paisaje y ponerlo en valor como un factor de calidad desde el punto de vista social, cultural, económico y de bienestar. En cuanto al patrimonio cultural, en las DOT 2019 se ha tenido en cuenta la evolución conceptual experimentada en las últimas décadas, que ha derivado en una noción de patrimonio cultural amplia e integral que supera notablemente la visión monumental. Debe ser objetivo de la revisión del PGOU hacer del patrimonio natural del municipio un activo compatible con el modelo de desarrollo socioeconómico sostenible. Se propone redactar un Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Recursos Turísticos

Badirudi beharrezkoa dela aurreikusitako eremuak doitzea eta berriz aztertzea, kontuan hartuta uholde-arriskua edo urbanizazio-kostuak (Larra eta Tejeria). Bestalde, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak proposatzen du udalerrian hirigintza-politika espezifiko bat kudeatzea, industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko prozesuetarako pizgarri gisa.

2019an onartutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen proposamen berritzaile bat da LPPek Hiri Hazkundearen Perimetroaren proposamen bat egin behar dutela zehaztea, lurzoruaren kontsumoari eusteko neurri guztiekin bat etorriz, eta, bereziki, Eremu Funtzionaleko gune dinamikoenentzat, hala nola Laudiorentzat.

**PAISAIA, KULTURA- ETA NATURA-ONDAREA, ETA TURISMO-BALIABIDEAK:** 2019ko LAGetan, paisaiak erreferentzia izan behar du lurralde- eta hirigintza-antolamenduan, eta modu integralean hartu behar da kontuan. Laudioko HAPOren berrikuspenean, paisaia integratu beharko da, eta kalitatearen faktore gisa balioetsi, gizartearen, kulturaren, ekonomiaren eta ongizatearen ikuspegitik. Kultura-ondareari dagokionez, 2019ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan azken hamarkadetan izandako kontzeptu-bilakaera hartu da kontuan, eta horrek kultura-ondare zabal eta integralaren nozioa ekarri du, monumentu-ikuspegia nabarmen gainditzen duena. HAPOren berrikuspenaren helburua izan behar du udalerriko ondare naturala garapen sozioekonomiko iraunkorreko ereduarekin bateragarria den aktibo bihurtzea. Baliabide Turistikoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana idaztea proposatzen da.

**GESTIÓN SOSTENIBLE DE LOS RECURSOS:** En materia de aguas, respecto a lo propuesto en el PTP del Área Funcional en materia de abastecimiento, saneamiento y depuración de aguas, no se ha avanzado respecto a las previsiones de recrecimiento del embalse de Maroño en Laudio/Llodio, ni en la construcción del nuevo embalse de Herrerías en Ayala/Aiara. Por otra parte, el Plan Territorial sectorial de ordenación de zonas húmedas incluye en el municipio la Presa de Olarte.

En cuanto a energía, no se han desarrollado los parques eólicos previstos para Ganekogorta en Okondo (grupo I) y Kolometa en Orozko (grupo II), aunque están recogidos en el PTS de Energía Eólica aprobado definitivamente en 2002; y en relación a la economía circular, no se contemplan medidas específicas.

**MOVILIDAD Y LOGÍSTICA:** en la medida de lo posible la revisión del planeamiento general de Laudio/Llodio, habrá de partir de un análisis del sistema relacional entre los diferentes nodos, tanto dentro como fuera del municipio, pero que afectan a la misma, y a partir de este análisis habrá de configurar un sistema interrelacionado de movilidad multimodal en el que la eficiencia en la movilidad, la movilidad peatonal y ciclista y el transporte público cobren especial protagonismo. En cuanto a ferrocarriles, la opción de soterramiento de un tramo de vía en Laudio/Llodio tampoco se ha desarrollado, ni se contempla en el PTS de la Red Ferroviaria del País Vasco. Es por ello que desde el PGOU de Laudio/Llodio habrá de reestudiar la propuesta. El PTS de la red ferroviaria, por su parte, no propone nuevos trazados.

En lo que respecta a las carreteras, en la A-625, a pesar de las obras ejecutadas, se trata de una carretera de alta

**BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA:** Uren arloan, Eremu Funtzionaleko LPPan uren hornikuntzaren, saneamenduaren eta arazketaren arloan proposatutakoari dagokionez, ez da aurrerapenik egin Laudioko Maroñoko urtegia handitzeko aurreikuspenei dagokienez, ezta Aiarako Herrerias urtegi berria eraikitzeari dagokionez ere. Bestalde, hezeguneak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak Olarteko presa barne hartzen du.

Energiari dagokionez, ez dira garatu Okondoko Ganekogortarako (I. taldea) eta Orozkoko Kolometarako (II. taldea) aurreikusitako parke eolikoak, nahiz eta 2002an behin betiko onartutako Energia Eolikoaren LAPean jasota dauden. Ekonomia zirkularrari dagokionez, ez da neurri espezifikorik aurreikusten.

**MUGIKORTASUNA ETA LOGISTIKA:** Laudioko plangintza orokorraren berrikuspena, ahal den neurrian, nodo desberdinen arteko harreman-sistemaren azterketa batetik abiatu beharko da, bai udalerri barruan, bai udalerritik kanpo, baina hari eragiten diotenak. Eta azterketa horretatik abiatuta mugikortasun multimodaleko sistema erlazionatu bat eratu beharko da, non mugikortasunaren eraginkortasunak, oinezkoen eta txirrindularien mugikortasunak eta garraio publikoak protagonismo berezia hartuko duten. Trenbideei dagokienez, Laudion trenbidearen zati bat lurperatzeko aukera ere ez da garatu, eta ez da aurreikusten Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planean. Horregatik, Laudioko HAPOk berriro aztertu beharko du proposamena. Trenbide-sarearen LAPak, bestalde, ez du ibilbide berririk proposatzen.

siniestralidad y considerada en el PICA de alta conflictividad, por lo que siguen siendo necesarias actuaciones de mejora.

Errepideei dagokienez, A-625 errepidean, egindako lanak gorabehera, ezbehar-tasa handiko errepidea da, eta AEPIn gatazka handikotzat jotzen da; beraz, hobetzeko jarduerak egin behar dira oraindik.

| En cuanto al papel de Laudio en el entorno comarcal y en relación con las DOT | Laudiok eskualde-ingurunean duen zereginari dagokionez, eta LAGei dagokienez |
| --- | --- |
| ¿Considera adecuado el papel del municipio dentro del conjunto del Área Funcional?<br>(si/no/nsnc) | Zure ustez,<br>egokia al da udalerriak eremu funtzional osoan duen papera?<br>(bai/ez/ed.ede) |
| ¿Considera adecuada y suficiente la apuesta por el parque lineal?<br>(si/no/nsnc) | Egokitzat eta nahikotzat jotzen duzu parke linealaren aldeko apustua?<br>(bai/ez/ed.ede) |
| ¿Modificaría algo de la propuesta?<br>(si/no/nsnc)<br>¿Qué? | Proposameneko zerbait aldatuko zenuke?<br>(bai/ez/ed.ede)<br>Zer? |
| ¿Considera adecuada la cuantificación residencial 8 años?<br>(si/no/nsnc) | 8 urteko bizitegi-kuantifikazioa egokitzat jotzen duzu?<br>(bai/ez/ed.ede) |
| ¿Considera adecuada y suficiente el suelo destinado a actividades económicas?<br>(si/no/nsnc)<br>En caso de no, ¿qué modificaría? | Egokitzat eta nahikotzat jotzen al duzu jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren egoera?<br>(bai/ez/ed.ede)<br>Bestela, zer aldatuko zenuke? |
| ¿Considera adecuadas y suficientes las propuestas de mejora de trazados viarios?<br>(si/no/nsnc) | Egokitzat eta nahikotzat jotzen dituzu bide-trazadurak hobetzeko proposamenak?<br>(bai/ez/ed.ede) |

*¿Considera suficientes las medidas relativas a la gestión del agua y de energías?*
*(si/no/nsnc)*

*Nahikotzat jotzen dituzu uraren eta energiaren kudeaketari buruzko neurriak?*
*(bai/ez/ed.ede)*

*¿Considera que se pasan por alto propuestas potenciales en relación a la economía circular?*
*(si/no/nsnc)*

*Zure ustez, ez al dira kontuan hartzen ekonomia zirkularrari buruzko proposamen potentzialak?*
*zirkularra?*
*(bai/ez/ed.ede)*

*¿Considera adecuada la propuesta de renovación del entorno del ferrocarril?*
*(si/no/nsnc)*

*Egokia iruditzen al zaizu trenbidearen ingurua berritzeko proposamena?*
*(bai/ez/ed.ede)*

*¿Considera que pueden darse soluciones adecuadas sin el soterramiento?*
*(si/no/nsnc)*

*Uste duzu irtenbide egokiak egon daitezkeela lurperatu gabe?*
*(bai/ez/ed.ede)*

## *Reflexión abierta*

## *Gogoeta irekia*

Para más información no dude en escribirnos a través de la web:

Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi webgunearen bidez:

http://laudioplanorokorra.eus/

Si está interesado en ser incluido en la lista de difusión del Plan General para recibir noticias sobre el procedimiento puede utilizar el buzón de participación para dejar su correo electrónico y sus datos.

Plan Orokorraren hedapen-zerrendan sartu nahi baduzu, parte hartzeko postontzia erabil dezakezu zure helbide elektronikoa eta datuak uzteko.

Gracias por su atención y su implicación en este proceso.

Eskerrik asko zure arretagatik eta prozesu honetan parte hartzeagatik.

TERRITORIO Y CIUDAD

TAPER